

ATXILOKETAK. Epailearen aurretik pasa gabe

Bilbon ostegunean atxilotuetako hiru lagun aske geratu dira, kargurik gabe

Beste hirurek bihar deklaratuko dute

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Joan den osteguneko polizi operazioan ertzaintzak Bilbon atxilotutako Kristina Monje, Maria Angeles Pastor eta Aitor Gartzia Lertxundi kargurik gabe aske geratu ziren atzo. Oiartzungo Komisaldegira eraman ondoren Bilbora eraman zituzten berriro, eta han aske utzi zituzten, Askatasunak prentsa ohar batean jakinarazi zuenez.

Ostegunean atxilotu zituzten Bilbon Iñaki Beaskoetxea, Mikel Jauregi eta Jon Maidagane-kin batera. Azken hirurek poliziaren esku jarraitzen dute eta astlehenean deklaratuko dute

Auzitegi Nazionalean, Madril-en.

Baltasar Garzon Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak Bilbotik zuzenean koordinatu zuen operazioan atxilotu zituzten seiak. ETari lagundu izana leporatu zien EAEko Herrizaingo sailburu Javier Balzak. Balzak, ordea, ez zituen lotu egungo *Bizkaia komandoarekin*, aurrekoren batekin baizik.

Balzak atxiloteten egunean esan zuenez, «Ertzaintzak garai hartan, 1999 eta 2000. urteetan, egindako ikerketen arabera, frogatuta dago, ETAko komandoei laguntza zehatz eta zuzena eman zietela» ostegunean atxilotutako sei lagunek.

LEITZA. 1.500 sinadura bildu dituzte Maxurrenea kultur etxea izan dadin



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Maxurrenea «herriari emateko» eskatu dute

«Maxurrenea herriarentzat» lelopean, 800 lagunek manifestazio isila egin zuten atzo Leitzaan. Duela gutxi, Nafarroako Gobernuak Espainiako Barne Ministerioari eman zion Maxurrenea etxea, bertan Guardia Zibilarren kuartel berria egin dezana. Leitzako hainbat esparrutako 38 talde, elkarre eta kolektibo erabaki horren aurka agertu ziren

eta horregatik egin zuten atzoko manifestazioa. Bertan 38 talde horietako ordezkariak izan ziren. Maxurrenea herriari itzultzeko ekimeneko ardura-dunek atzo iragarri zuten, Leitzaan diren 16 urte goitiko 2.500 pertsonetatik 1.500ek eman dute sinadura Maxurrenean kultur etxea eta herri kirolen museoa egin dadin.

LABURAREN



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Elorriora joateko deia egin dute gazteen gurasoek Bilbon egindako prentsaurrekoan.

«Gazte mugimenduko kideen gurasoek» Elorrioko Gazte Topagunera joateko deia egin diete gainerako gurasoei

Datorren martxoaren 29, 30, 31 eta apirilaren 1ean Elorrioren egingo den Gazte Topagunera joateko deia egin dute gazte mugimenduko kideen gurasoek. Gurasoen hitzetan, «apirilaren 1ean Elorriora bertaratzeko deia zabaldu nahi diegu gainerako gurasoei. Egun horretan Gazteen Topaguneko atea irekiko dira eta helduentzat egitarau berezia antolatu dute». Besteak beste, txaranga eta kale animazioa izango dira goizean, ziklo-bazkaria, eta arratsaldean Xabier Amurizaren bertso emanaldia, Maskarada eta Erramun Martikorenaren kantaldia izango dira. «Seme-alabez harro gaudelako eta azken aldian euskal gazteen aurka zabaltzen ari den errepresioa dela eta, gure babes, laguntza eta adostasuna adierazi nahi diegu» esan zuten gurasoek, atzo Bilbon emandako prentsaurrekoan.

Avilatik bueltan auto istripua izan dute euskal preso baten lagunek

Avilako Brieva espetxean dagoen Nagore Mujika euskal preso bisitatetik zetozen bi lagunek auto istripua izan zuten atzo, Avilan. Istripuaren ondorioz, bi zauritu izan ziren, horietako bat euskal preso bisitatetik zetorrena. Avilako ospitale-eraman zuten eta bularreko hezurra hautsita dauka. Avilako ospitaletik Bilbora ekarri dute anbulantzian, ospitalean jarraitzeko. Etxeraterik sakabanaketaren ondorioz, euskal preso senide eta lagunek jasan behar duten egoera salatu du.

«Euskal Herriak bizi duen egoera salatzen» Bizkaiko zubitik eskegi ziren atzo lau lagun

Uribe Kostako gazteriak Euskal Herriak bizi duen «salbuespen egoera» salatu zuten atzo Bizkaiko zubian egindako ekintza batekin. Atzo goizean, lau gazte Bizkaiko zubitik eskegi ziren bi pankartekin Areetako (Getxo) aldean, «Euskal Herria herri zapaldua dela» adierazteko. Ekintza 13:45ean hasi zen eta berehala Ertzaintzak inguruak itxi zituen. Zubia bi orduz egon zen moztuta, Ertzaintzak gazteak jaitsi zituen arte. Horietako bat han bertan geratu zen aske, eta beste hirurak Algortako portura eraman eta bertan askatu zituzten.

Batarrek bat egin du Abertzaleen Batasunak antolatutako ibilaldiarekin eta Aberri Egunarekin

Abertzaleen Batasunak Lizarra eta Garaziren artean antolatu duen ibilaldiarekin eta Aberri Egunarekin bat egin du Batarrek. Halaber, bi ekitaldietan parte hartzeko deia egin du. «Bizikidetzaren hobetzeko» abertzale eta ezkerreko sektoreen artean akordioak egin beharko lirakeela esan du. Milagros Rubio legebiltzarkidearen iritziz, «ETA eta Espainiako Gobernuaren jarrera geldia aurrean bazterkerarik gabeko elkarriketa abiatu beharko litzateke». Espainiako Estatuari Euskal Herriko eskubideak onartzeko eskatu dio baita ere.